


Trenbide-hondartza

B PROPOSAMENA

POZOKOETXE PARKEA



Deskribapen orokorra

B proposamenaren diseinuak lur hau iraganean izan zena gogorarazi nahi du, hau da, aspaldiko **trenbide-hondartza**. Iraganaldi hori gogoratuko duen parke bihurtuko da, zaharberrituz eta eguneratuz. Horretarako, Erronkari Ibarra kalearen eta altxatzen ari diren bizitegi-eraikin berrien arteko zabalgunearen geometriaz baliatuko da. Era berriko hondartza berri bat eraikiko da, kasu honetan hiritarren erabilpen eta gozamenerako.


Trenbide-hondartzen ohiko esquema jarraituz, hau da, trenbide-segidak, bata bestearen alboan, parkea osatuko lukeen espazio sorta bat diseinatu da, argi eta garbi bereiziak beren funtzioari dagokionez. **Pasealeku perimetralak** diseinatu dira, bai etxebizitzaren ondoan, bai berriki eraikitako arrapala eta eskaileren ertzean, planteatutako bide-bandak inguratzen dituenak. Inguruko pasealeku horiekin batera, zuhaixka eta berdegunez osatutako bandak diseinatu dira. Berdegune hauetan mendixkak eratuko dira, zuhaitzen landaketa ahalbidetuz eta, era horretan, leku estrategikoak itzalaren bidez eguzkitik babestuz.

Era berean, parkearen bihotzean egonaldiak eta itxaroteko **barne-plazak** sortzen dira, banku angeluzuzen eta linealekin, bagoiak gogoratuz. Eremu horiek bizikletak aparkatzeko eremuekin eta haurrentzako jolasetarako eremu mugatu batekin osatuko dira. **Haurrentzako jolastoki** horretan, haurrentzako jolasak jarriko dira. Egurrezko tren bat nabarmentzen da, orubearen iragana gogorazten duena, eta parke bihurtu aurretik zelaiguneak zuen funtzioa haurrei azaltzeko aukera ematen duena.

Bide horiek, era berean, parkeko sarbideen eta planteatutako eremuen arteko **komunikazioa** errazteko bideekin lotzen dira, parkearen erabiltzaileei beharrezkoak ez diren ibilbideak egitea saihestuz.

Azpirarratzekoa da proposamen guztiek berekin dakartela Agirre Lehendakariaren kalea birmoldatzea, Autonomia eta Kareaga Behekoa kaleen artean. Kale horretan zehar dauden lubakiak kenduko dira, etxebizitzetatik parke berrirako erabateko iragazkortasuna ahalbidetuz. Horretarako, trenbide azpiko pasabidetik ibilgailuen igaropena ezabatuko da oinezkoen erabilera soilik baimentzeko. Gainera, oinezkoentzako pasabide horrek sarbide egoki eta irisgarria geltokiko atari berrira ahalbidetzen du (igogailu berri baten bitartez). Bestalde, Bidearte eta Errioxa kaleak lotzea lortu da, Lehendakari Aguirre kaleko galtzada kale horien eta Kareaga behekoa kalearen artean espaloirekin berdindu delako. Horrela, ibilgailuentzako pasabideak eragiten duen auzo horien arteko arrakala konpontzen da kalitate handiagoko hiri-espazioak lortuz.

Kontzeptua



Playa de vías

Ingeniariek «bide-hondartza» deitzen diote geltokietako maniobra-plataformari. Plataforma horretan, trenek beste lokomotorekiko lotura itxaron dezakete, norabidea aldatu edo mantentze-lanen eremu batera desbideratu.


Oroitzapena

1 iz. Oroimenean gordetzen den eta gogora datorren iraganeko irudia.

2 iz. Norbaitek edo zerbaitek uzten duen oroitzapena.

3 iz. pl. Norbaitek, bizi izan dituen gertaera gogoangarriez egiten duen azalpen idatzia.

Kontzeptu-krokisa



01



Aire-bista

Trenbide-hondartza

B PROPOSAMENA

POZOKOETXE PARKEA



Oinezkoen ikuspuntua